

# GURE GAUZAK

## SABINO ARANA FUNDAZIOA: 30 URTE BEHARTSUENEN ALDEKO LANA, AHALEGINA, ELKARTASUNA, ELKARRIZKETA, BERRIKUNTZA ETA KONPROMISOA SUSTATZEN

Eusko Jaurlearitzako lehendakari Iñigo Urkullu jaunak buru izan zuela, Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien XXX. edizioa egin zuen urtarrilaren 27an, Bilboko Arriaga antzokian. Dagoeneko 175 pertsonak, elkarrek eta erakundek jaso dute saria urtero-urtero ospatzen den ekitaldi horren 30 edizioetan, horien guztien gizartearen aldeko lan eta konpromisoagatik. Elkarrizketa, berrikuntzarako grina, ahalegin, elkartasuna eta beste balio batzuk izan ditugu nagusi azken 30 urteotan.

Azken kultura-ekitaldi horretan, ondo-koek jaso zuten saria: Txomin Bereciartua abadea eta gizarte- nahiz kultura-eragilea, Dolores Redondo idazlea, Juanjo Mena orkestra-zuzendaria, Ana Urquijo abokatua eta Athletic Clubeko presidente ohia eta Michel Camdessus ekonomialaria eta NDFko zuzendari kudeatzaile ohia

Hasiera-ekitaldian, Fundazioko lehendakariak esandakoaren arabera, Sabino Arana Sariak etorkizun oparoa dute, "herri proiektua lantzen jarraituko dugulako, Euskadi eta mundu zuzenagoak, gizatiarragoak eta jasangarriagoak lantzen segituko dugulako, bakean bizi diren Euskadi eta mundua nahi ditugulako".

Geroago, Juan M<sup>a</sup> Atutxak XXX. edizio honetako saridunen merezimenduak eta dohainak aletu zituen. Ildo horretan, eskerrak eman zizkion Txomin Bereciartuari, gizarte- eta kultura-arloko ekimen ugariren bultzatzaile izateagatik eta horietan parte-hartzeagatik, bai eta, Bereciartuak egin bezala, "sasoi latzagoetan, gazteak eta lan egiteko aukerak, gazteak eta balioak uztartu zituzten guztiei ere". Dolores Redondo idazleari esker ona adierazi zion Atutxa jaunak "herria, Basque Country, egiteko eragatik", Baztango paisaia eta xarmaren berri

milaka kilometrotara hedatu duelako, hala nola New York, Sidney edo Praga hirietara. Juanjo Mena dela eta, nabarmendu zuen “batuta miresgari honek” Arabako lurraldearen arima eta bihotza guztiz atxikirik daramatzala bere DNAn, bai eta Francisco Escuderoen *Illeta* edo bere maisu Carmelo Bernaolaren *Euskadi. Euskarari Abestia* kantata ere.

Ana Urquijoren inguruan, hauxe esan zuen Fundazioko lehendakariak: “egindako lanari esker, kristalezko sabaia apurtu duen emakume honek sekulako bidea egin du ideal zuzenetan zuzenean: berdintasunaren kausan”. Michel Camdessus, berriz, honela deskribatu zuen “euskal herritar unibertsal honek erakutsi digu eredu ekonomiko inklusiboagoak bideragarriak direla, mundu zuzenagoa, gizatiarragoa eta jasangarriagoa egin dezakegula”.

Harmailetatik bertatik, Atutxak eta Fundazioko zuzendariak, Iruñe Zuluaga andreak, banan-banan hartu eta agurtu zituzten saridunak.

Urkullu lehendakariak gain, politika, kultura eta gizarte esparruetako pertsona esanguratsu ugari izan ziren ekitaldian, besteak beste, María Solana, Nafarroako Gobernuako bozeramailea; Bilboko alkatea, Juan M<sup>a</sup> Aburto; Donostiako alkatea, Eneko Goia; Eusko Legebiltzarreko burua, Bakartxo Tejeria; Bizkaiko ahaldu nagusia, Unai Rementeria; Arabako diputatu nagusia, Ramiro González; EAJ-PNV alderdiaren EBBko presidentea, Andoni Ortuzar; EAJ-PNV alderdiaren BBBko presidentea, Itxaso Atutxa; Bizkaiko Batzar

Nagusietako burua, Ana Otadui; Bizkaiko Batzar Nagusietako burua, Pedro Elosegi; EUDELeko burua, Imanol Landa; Athletic Clubeko presidentea, Aitor Elizegi; Deustuko Unibertsitateko errektorea, José M<sup>a</sup> Guibert; Mondragón Unibertsitateko errektorea, Vicente Atxa; Josu Erkoreka, Pedro Azpiazu, Jon Darpón, Bingen Zupiria, Cristina Uriarte, Estefanía Beltrán de Heredia eta Arantza Tapia sailburuak, Mikel Legarda Kongresuko diputatua; Brasilgo kontsula, Tomás González; eta legebiltzarkide, diputatu, senatari eta zinegotzi ugari.

Sara Gandara kazetariak ekitaldia gidatu zuen eta Havana 537 musika-taldeak, hau da, bost kubatar, kolonbiar batek, perutar batek eta emakume bilbotar batek osatutako zortzikoteak girotu.

